


2011 Hauteskundeak



Halako batean, Alde Zaharreko obrak badihoaz,...

Herritarren txokoa:

	<p>Paso Otezuri hacia Hotel Zumaia: - firme en muy mal estado - con lluvia imposible transitar</p> <p>Otezuritik Zumaia Hotelera doan bidea zuloz be- tea dago eta euria denean ezin daiteke pasa</p>
<p>Carteles en cualquier pared: ¿Cuánto nos cuesta la limpieza de las paredes?</p> <p>Kartelak edonon jarrita. Zenbat diru suposatzen digu garbiketak?</p>	

¿ Sabías que...

- **... murrizketa garaian Urola Kostako Mankomunitateko lehendakariak (BILDU) %100ko liberazioa jarri diola bere buruari, aurreko legegaldietan, EAJ agintean zegoela, %50 edo %75ekoa gehienez izan zuenean?**
- ... durante el próximo año 2012 en Zumaia pagaremos un 20% más por la tasa de basuras?
- **... Zumaia Udalak hilean 806 € gastatzen ditu Kaleetako desinfekzioan, besteak beste arratoien kontra egiteko, Jadarreko igogailuaren mantentzean gastatzen duen kantitatearen antzekoa?**
- ... la iluminación recientemente instalada de la orilla del Narrondo supone un importante nivel de contaminación y gasto que nos debe de preocupar?
- **... joan den maiatzean, hauteskunde kanpainan, oso ondo "lotuta eta hitzartuta" zegoen frontoia eraikitze konpromisoa orain bertan behera gelditu dela eta ez dakigula Zumaia herriak frontoia noizko izango duen eraikuntza negozio inmobiliarioan oinarritzen delako?**
- ... el Ayuntamiento tiene varios contratos caducados y sin renovarlos como exige la ley, entre ellos el servicio de Limpieza Viaria y recogida de basuras que terminó en 2007?
- **... Zumaia Lantzen elkarte publikoak,%100ean Udalarena denak eta non alkatea den bere presidentea, ia 8 milioitako zorra duela nahiz eta Udal agintariak behin eta berriro Zumaia Udalak zorrik ez duela errepikatu?**

El puerta a puerta

- Si reciclamos podemos llegar a un 80% dice BILDU, pero ¿qué hacemos con el restante 20%, unas 100.000 toneladas? Si no hay vertederos, si no va la incineradora, ¿a dónde llevamos esa basura?

- Flandes dugu birziklatzen aitzindaria. %60-70a birziklatzen omen dute. Hala eta guztiz 10 errauskailu dituzte.

- El "puerta a puerta" no es un sistema alternativo viable. Puede funcionar en pueblos pequeños, pero no se pueden llenar todos los portales de "txintxilarios".

Arantxa Tapia Astigarragan jaio zen 1963. urtean. Azken 23 urteak Zumaian pasa ditu. Ezkondua eta bi alaben ama.

- *Ingeniaritza industrialean doktoratua*
- *E. Jaurlearitzako Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea (2005-2007)*
- *Gipuzkoa-ko Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketako foru diputatua 2007-2011.*
- *Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide hautatua izan zen 2011ko maiatzean ospatutako hauteskundeetan.*
- *Ospatu berria diren hauteskunde orokorretan Gipuzkoako EAJren zerrendaburua izan da. Hemendik aurrera eta datozen 4 urtetan Espainiako Kongresuan arituko da.*



Zumaia Zurekin- Ze balorazioa egiten duzu emaitzen ondoren?

Arantxa Tapia. EAJ-ren helburu nagusiak bete dira; hau da, Euskal Autonomi Erkidegoan lehen indar politiko gara eta bestalde, Madrilgo Kongresuan Talde propioa izango dugu. Halere, esan beharra dago Gipuzkoan bigarren Diputatua lortzeko boto batzuk falta izan ditugula eta hori izan da, hain zuzen ere, nolabait lortutako emaitza ona pixka bat ilundu duen gaia.

Hemendik aurrera, beti bezala, egunero lanean arituko gera datozen hauteskundeetan berriro ere lehen indar izateko eta Gipuzkoarren konfiantza berresteko.

Z.Z. Oraingo honetan Madriletik jarraituko duzu Euskadiren alde lan egiten. Zein izango da EAJ taldearen zeregin nagusia?

A.T. Kanpaian zehar behin eta berriz esan dugun bezala, gure lana Madrilen lau lerro nagusitan jorratuko dugu.

- Hazkunde ekonomikoa eta krisialditik ateratzea, enplegua sustatuz

- Euskadiren interesak defendatzea birzentralizazio tentazioen aurrean

- Ongizatearen ekonomiaren aldeko apustua, garapena eta gizarte kohesiorako tresna gisa

- Bakea finkatu eta normalizazio politikoari ekin.

Guzti hau, Estatus Politiko berri bat lantzearekin batera, akordioa bilatuz eta Euskal Herriak bere etorkizun propioa era aske eta demokratikoan erabakitzeke duen eskubidea eta gaitasuna aitortuz.

Z.Z. Azaroaren 20ko hauteskundeetan emaitzen balorazioa egin al dezue? Zer deritzozu Kongresuko osaketari buruz?

A.T. Espero genuen bezala Alderdi Popularrak gehiago absolutua lortu du, PSOEk izugarritzko porrota jasan du eta bestalde, hainbat talde txiki agertu dira. Talde bakoitzaren indar politikoa ikusiz eta jasaten ari garan egoera ekonomikoa kontutan izanik, EAJ-k garatu duen eredu ekonomikoa eta soziala agertzen da alternatiba egoki bakar bezala. Halere, Estatuak tentazioak izan ditzake birzentralizazioari ekiteko eta erne egon beharra daukagu Euskadi lehen mailako Herri izaten jarraitzeko. Bestalde, bakearen eta normalizazio politikoaren aukera ezin da baztertu eta gure ustez, EAJ-ren lana ezinbestekoa izango datozen ur-

teetan.

Z.Z. Estatutua Politiko Berriaren garapena aldarrikatzerakoan AMAIUREn lankidetzara espero al duzue?

A.T. Nahiz eta ezker abertzaleak oraintxe deskubritu duen ZUBIA eta PP/PSOEK ez duen ikusi nahi, Herri honek zubia aspaldi eraiki zuen. Zubi horrek bi zutabe nagusi ditu, giza eskubide guztien errespetua eta elkarrizketa politikoa. Bi zutabe horietan oinarritu behar da normalizazio politikoa eta hemendik aurrera, lan handia dugu aurretik.

Estatutua ia guztiz beteta egotea, transferentzia guztiak lortuta egotea EAJ-ren lanaren ondorioa da, beste batzuekin lankidetzan, baino nagusiki EAJ-ren lidergoarekin. Gaurko ongizate maila Euskadin baldin badegu, Jaurlearitza eta Legebiltzarra nahiz Kontzertu Ekonomikoari esker izan dira. Eta guzti horiekin ekarri dugu Euskadi dagoen lekura.

Bestalde, Ibarretxek Estatutu Politiko berria proposatu zuenean, Ezker Abertzaleak hiru boto eman zizkion aurrera egin zezan, baino benetako konpromisorik gabe. Nonbait, ez ZEN MOMENTUA, hori esaten zuten behintzat. Orduan aukera alferrik galtzen utzi zuten. Eta orain zer??? Mundua orain hasten al da? Beraiek horrela erabaki dutelako??. Ongi etorriak dira, baino ez daitezela guri leziorik ematera etorri, Herri hau eraikitzen, zubiak barne, 35 urte daramagu eta.

Z.Z. Azken urteotan hainbat erakundetan lanean aritu zara. Hemendik aurrera Madrilgo Kongresutik aritzeak aldaketa handia suposatuko du zure egunerokotasunean?

A.T. Nire eginbeharra izango da gaur arte Jose Ramon Belokik egin duen lana egiten jarraitzea, bai berak parte hartu duen batzordeetan bai berak landu dituen gaietan. Batez ere, ikerketa eta azpiegitura alorretan oinarrituko dut nire lana. Gaiak nahikoa ezagunak ditut, baino lan egiteko modua zeharo desberdina izango da, orain arte batez ere exekutiboan aritu naizelako eta orain aldiz, Kongresuan arituko naizelako.

Egia da eguneroko bizitza aldatu egingo dela, batez ere Madrildik aritu beharko dudalako eta familiako egoera zeharo desberdina izango delako. Dena den, epe laburrean ohituko garela espero dut.



Zumaia eraiki giza-eskubide guztien errespetua eta elkarrizketa politikoan oinarrituz



Bakea egia bihurtzen ari den unea iritsi zaigu. Hau da eta izan da **EAJ**ren helburu eta ardatz nagusia. Herri batek aurrera egingo badu, balore sendoak behar ditu. Giza- Eskubideak, gizon-emakumeen arteko berdintasuna, gutxien dutenekiko elkartasuna, gizar-tearekiko konpromisoa, lanarekiko jarrera, iniziatiba, besteekeko errespetua... hauek ez dira hitz dotoreak soilik. Gure jokabiderako erreferentzia nagusia dira.

Giza eskubideak onartu eta berauen errespetua landu, jarduera demokratikoa garatzeko. Elkarrekiko errespetua oinarritzeko da bizikidetzaz zuzenagoa eraikitzeko. Elkarri entzun eta elkarrizketa landu, iritzi eta ideia politikoak elkarri azalduz, elkarrizketa izan dadila akordioak lortzeko tresna.

EAJrentzat bakezko heziketa lantzea beharrezkoa da sistema demokratiko sendoa eta arduratsua errotzeko, etorkizunaren oinarriak finkatu eta indarkeria berriro ez pizteko.

EAJko gizon-emakumeek ekintzez sendotu nahi dugu bake-itzaropena. Guztion ahalegina eskatzen duen lana dugu. Zailtasunen aurrean burua bere lekuan dugula erakutsi dugu eta etorkizunari aurre egiteko prest gaude krisi garai honetan. Haizea aurka dugunean ere, irmo jarraitzen dugu Zumaia eta Zumaiarren alde lan egiten. Herriak aurrera egin dezan, honi, merezi duen begirunea eskaini behar zaio. Herri batek ez baitu aurrera egingo elkarbizitza eta garpapena oztopatzen bazaizkio.

Zumaia UBB



- Abuztuaren 12an **taloak**
- **Irailaren 8a**, Arritokieta eguna, ermitan eta meza ondoren salda eta txorixoa.
- **Azaroaren 12a**: gaztainak
- **Abenduaren 24a**: **Gabon kanta lehiaketa 2011**

